

**VII. Euskal Kirolaren
Eguna
Laudio**

2010eko urriaren 23-24a

Euskal Kirol Federazioen Batasuna

1. VII. Euskal Kirolaren Eguna

2. Egitaraua. Laudio

3. Euskal Kirol Federazioen Batasuna

4. Prentsa

5. Eranskina

1. VII. Euskal Kirolaren Eguna Laudion

- Kepa Acero surflaria izango da aurtengo ohorezko gonbidatua. "Bost olatu, bost kontinente" bere abentura bidaiaren berri eman eta autografoak sinatuko ditu.

-Ibarretxe lehendakariak, Laudioko Udalak gonbidatuta, euskal federazioen eta selekzioen omenez jarriko den oroitarriaren ekitaldian parte hartuko du.

Rafael Munilla Euskal Kirol Federazioen Batasuneko presidenteak, Joseba Saies Euskal Kanoe Federakuntzako presidenteak eta Jon Karla Menoio Laudioko alkateak datorren urriaren 24an Lamuza-Granja kiroldegian ospatuko den VII. Euskal Kirolaren Egunaren berri eman dute gaur Udaletxean. Aurtengo edizioan ere, nobedadeak izango dira. Jon Karla Menoio alkatearen esanetan, Ibarretxe lehendakariak, Laudioko Udalak gonbidatuta, euskal federazioen eta selekzioen omenez jarriko den oroitarriaren ekitaldian parte hartuko du besteak beste.

VII. Euskal Kirolaren Eguna

Hartara, 2010eko urriaren 24an, igandea, (ekintza batzuk 23an burutuko badira ere), Euskal Kirolaren Eguna ospatuko dugu Laudion (Araba). Euskal Kirol Federazioen Batasunak ekimena antolatzen duen zazpigarren urtea da honakoa eta guztiz indartuta datorrela esan

daiteke. Aurten ere, euskal kirola aintzat hartuko duen jai egun parte hartzaile eta aldarrikatzailea antolatzea izango da helburu nagusia. Esan bezala, zazpigarren edizio hau aurrera eramateko aukeratutako udalerria Laudio izango da. Lehenbiziko edizioa Bilbon izan zen; bigarrena Durangon; hirugarrena Tolosan; laugarrena Amurrion, bosgarrena Arrigorriagan eta iazkoa Tolosan berriz ere. Lamuza-Granja kiroldegian kokatuko diren ekintza ezberdinen ordutegia 11:00etatik 15:00etara izango da, gutxi gorabehera.

Hainbat euskal kirolen ezagutza eta hastapena sustatu nahi du Euskal Kirolaren Egunak, hala nola Euskal Kirolaren ordezkariak Euskal Federazioen zein Euskal Kirol Federazioen Batasunaren inguruan indartu; hau da, gure kirola jardunaldi parte hartzailean bultzatzeko aitzakia da.

Ospakizunaren beste helburu handietako bat, beti legez, indarrean dauden kirol modalitateetako Euskal Seleksioen nazioarteko ordezkariak ofiziala aldarrikatzea da.

30 bat modalitate bere baitan hartuko dituen Laudioko VII. Euskal Kirolaren Egunean aurreikusitako kirol ekintzek izaera parte hartzailea izango dute eta jai egun aktibo batez gozatu nahi duen orori zuzenduta egongo dira. Gainera, begiraleez gain, urtero jaialdi honetan izaten diren kirolari entzutetsuak ere bertan izango dira.

Aurtengo ohorezko gonbidatua, esaterako, Kepa Acero surflaria da. Gurekin izango da "Bost olatu, bost kontinente" bere abentura bidaiaren berri emateko prest. Munduan zehar hilabeteetan bideokameraz jasotakoa erakutsiko digu Kepak eta autografoak sinatzeko aukera ere izango du. (<http://www.fivewavessurf.com/>)

Bestalde, honako ekintzak antolatuko dira Lamuza-Granja kiroldegian: pilota tailerrak, halterofilia txapelketak, taekwondo, karatea, judoa, hockey-a, txirrindularitza, gimnasia erritmikoa, urpeko ekintzak (urpeko hockey-a), kayak poloko txapelketa, xakea edota kirol

egokitu erakustaldia, eskalada, saskibaloï txapelketak, hipika (zaldian ibiltzeko aukera), borroka eta sanboa, mahai-tenisa, squasha, taekwondoa, surfa... Halaber, Euskadiko hainbat txapelketa ikusgai izango dira: halterofilia, kayak polo, xakea eta judoa esaterako. Bestalde, 13:00etan, Euskal Federazioen omenezko oroitarria jarriko dute.

Jaialdiaren izaera ludikoari erantzunez, umeentzako jolasak antolatuko dira, hala nola Euskal Kirol Federazioen Batasunaren arropa eta produktuak saltzeko denda.

2. Egitaraua

13.00etan: agintariek oroitarria jarriko dute.

Gonbidatu bereziak: Ibarretxe lehendakaria eta Kepa Acero surflaria.

- Urpeko ekintzak

Hockey erakustaldia eta konpetiziozko urpekaritza.

- Xakea

16 urte azpikoen Euskadiko Txapelketa taldeka (xake azkarra).

- Saskibaloia

Emakumezko zein gizonezkoen txapelketa infantila.

- Kirol Egokitua

Argazki erakusketa, ikusmen urrikoentzako xakea eta mahai-tenisa.

- Gimnasia erritmikoa

Urriaren 23an.

- Halterofilia

Euskadiko Promesen Txapelketa. Emakumezkoak eta gizonezkoak.

Euskadiko Opena.

- Hipika

Animaliarekin lehen kontaktua eta ibilaldiak.

- **Judoa**

Txapelketa absolutua. Judo, aikido, jiu jitsu, kendo eta wu shu erakustaldiak. Urriaren 23an.

- **Hockey-a**

Erakustaldia eta sustapen jokoak. Urriaren 23 eta 24an.

- **Karatea**

Kumite (borrokaldiak) y kata (figurak eta formak) erakustaldiak, emakumezkoak eta gizonezkoak.. Umeen erakustaldia. Proba teknikoak.

- **Mendizaletasuna**

Eskalada ikastaroa eta erakustaldia.

- **Pilota**

Tailerrak.

- **Piraguismoa**

Kayak Poloko Euskadiko Txapelketa.

- **Surfa**

Taula mekanikoa. Kepa Acerok "Bost olatu, bost kontinente" proiektua aurkeztu eta autografoak sinatuko ditu.

- **Taekwondo**

Euskal Selektzioaren erakustaldia.

- **Mahai-tenisa**

Kirol egokituko kirolarien eta profesionalen erakustaldiak.

- **Borroka eta Samboa**

Borrokaldien erakustaldiak.

- **Squasha**

Erakustaldiak.

- **Txirrindularitza**

Trialsin erakustaldia.

3. Euskal Kirol Federazioen Batasuna

2003an gauzatutako euskal kirolaren proiektu zaharra da Euskal Kirol Federazioen Batasuna. Euskal kirolaren federazio guztiak erakunde juridiko bakarrean biltzea da Rafael Munillak zuzentzen duen erakundearen helburu nagusia. Euskal kirolak ekimena beharrezkotzat jotzen duela frogatzen dute Euskal Kirol Federazioen Batasunaren babespean dauden 48 kirol federazioek, hau da, 200.000 kirolarik (ia Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleriaren %10). Honakoak dira federazioek dauzkaten helburuak:

- Euskal Herrian Kirol Federatuaren hazkundera.
- Euskal selekzioak indartzea.
- Federazioek eta kirolariek diru-laguntzak errazago hartzeko esfortzua egitea.
- Kirol politikak sortzeko orduan ideiak ematea.

Gure herrialdeko federazioak ordezkatzeko dituen erakundera da Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB). Euskal kirola orokorrean eta zehazki federatutakoa sustatzea da bere helburu nagusia. Halaber, Euskal Kirol Federazioen Batasunak jarraitu beharreko ildoak zehaztu zituen hasiera batetik:

- Gazteagoak diren kirolariak lurraldeetako emakumezkoen selekzio ezberdinetan parte hartzea.
- Euskal federazio ezberdinek elkarrekin lan egitea.
- Federazioei gastuak gutxitzea eta zerbitzuak hobetuko dituen komuneko mutualitatea.
- Federazioen baliabide ekonomiko zein materialak aurrezte.

-Kirol Federatuan dopinaren aurka egitea.

EKFBren asmo eta helburuen artean, aipagarria da euskal kirol selekzioen indartzea, euskal kirolaren sustapena, defentsa eta ordezkapena; Euskadiko kirola hobetzeko erakunde publiko zein pribatuekin elkarlana; Euskadiko kirol politika hobetzeko ekimenen eta ekarpenen proposamena eta, azkenik, euskal kirol federazioentzat komuneko zerbitzuak sortzeko nahia bere osotasunean ahaztu barik.

Horrez gain, EKFBk 2008ko Itsas Joko Atlantikoak antolatu zituen Getxo eta Sopelanan. Parte hartzeari eta antolakuntzari dagokionez, arrakastatsuak izan ziren oso; are gehiago, orain dela 16 urte sortu zirenetik, Joko onenak izan direla onartu du askok.

4. Prentsa

Tolosako Euskal Kirolaren Egunaren inguruan informatu dadin, EKFBk Prentsa zerbitzua jarriko du komunikabide guztien esanetara.

Informazioa osatu nahi duen komunikabideek Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Prentsa zerbitzuarekin kontaktuan jarri daitezke.

Arduraduna: Oiane Moran

Telefonoa: 688 627 014

